



Argazkiak: Zarrabeitia

UHOEDEEN INGURUAN

Abuztuaren azken asteburu eskergaizto hartan Euskal Herriak jasan zituen 1.500 milioi ur-tonelada haiek, hirurogeitik gorako heriotz eta galera material ikaragarrietaz gain, bestelako ondorioak ere ekarri dizkigute euskaldunoi; eta bada garaia, zoritxarreko hondamendi horren ur eta basa tartean jaurti izan zaigun bestelako uholdeaz ere erreflexio pare bat egiteko.

Horrela da izan ere: Euskal Herrian gertatu denez, euri jasa izugarri horrek ere pisu handiagoa izan du, ikaragarritzko karga politikoa ekarri baitu berarekin. Gertaera horretan ikusi baitu Espainiako Estatuak euskaldunon aurrean bere burua justifikatzeko aukera aparta. Eta ahalegindu da, egia esan, komunikabideen bitartez, gure artean erabat galdua zeukan prestijioa berreskuratzen.

Uholdeak bitarteko zirela, hauxe izan da, gutxi gora behera, errepikatuz bidali digun mezua:

Euskaldunok ere, beste edonor bezala, halako hondamendi naturalen arriskupean aurkitzen zarete. Gizonaren, Zientziaren eta Gizartearen gaineratik dauden indar naturalak dira hoiek; sorpresaz jotzen dute eta ezinezkoa da inolako prebentzio-neurririk hartzea. Eta Euskal

Herrian bezain herri txiki batek ez du halako gertaera baten ondoren burua altxatzeko beste indarrik ez mediorik: hara hor zein diren hutsalak zuen independentzia nahiak! Espainiako Estatuaren babesa behar duzue nahi eta ez.

Estatua agertzen zaigu era hone-tan beharrezko antolakundetzat. Bere izate menderatzailea izkutatuz, erakunde ongile bezala aurkezten du bere burua, gure herriaren etorkizunaren giltz bakarra duena.

Zama astuna benetan bere askatasun nazionala lortzeko borrokatzen ari den herri honen lepora jaurtitzen den hau! Merezi du, beraz, dotrina ofizial honen egiaz edo gezurraz erreflexionatzea, eta ahal den neurrian, euskal gizartearen talde ezberdinetan lortu duen eragina ere neurtzea.

PREBENTZIO EZINEKO HONDAMENDI NATURALA?

Bi dira lehenengo eta behin burura datozkigun galderak: ea uholde horiek ezin zitezkeen aurrikusi; eta eurijasak hasi ondoren, ea nolako neurriak hartu zitezkeen Administrazioak ondorio hain kaltegarriak epeltzeko.

Lehen galderari erantzunez, Anton URIARTE geografoak zera diosku:

«Giro klimatiko berezi baten ondorioz gertatu dira uholdeok. Itsaso berotik altxatu zen aire hezutuak, atmosferan egun haietan ematen zen aire hotzarekin kontaktuan jarri eta hala gertatu dira eurijasak. Atmosferako aire hotz hori Polotik zetorren korronte bat zen, 15 gradu zeropeko tenperaturan, eta itsasoaren tenperatura aldiz, ezohizko be-roa zen».

Donostiako metereologi-zentruaren zuzendari den Jose Ignacio ALVAREZ USABIAGA ere zentzu berean azaltzen da:

«Egun batzuk lehenago norbaitek hori gertatuko zenaren posibilitateaz galdetu izan balit, ezinezkoa zela erantzungo niokeen. Antza denez, aldatzen ari da Euskal Herriko mikroklima».

Badirudi, beraz, benetan uste ezinean harrapatu gintuela oraingoan uholdeak. Baina egia da baita, behin eta hasi zenean, Ipar Euskadi lehenengo eta Gipuzkoa, Bizkaia gero eta Cantabria azkenik hondatu zi-

tuela, toki bata eta bestearen tartean orduen baita egunen aldia egon zelarik. Eta gezurra badirudi ere, Bizkaiko bidean zetorrela eta Bilbo jaietan eta jendez beterik zegoela, ez zuen hemen inork inolako alar-marik jo. Barne Arazoetarako Ministroa den BARRIONUEVO jaunak gero bestelakorik esan badu ere («ostegunaren arratsaldean hartu ziren Gipuzkoan lehenengo seguritate-neurriak. Ostiralean, goizeko lehen orduetarako, martxan zeuden Bizkaian seguritate-neurri guztiak» —El Pais, irailak 1, 11. orrialdean), ostirale eskergaizto hartan eta arratsaldeko bostetan Bilboko Arealean geundenok gara lekuko han ez zegoela inolako seguritate-neurri ofizialik, gure begi izutuek Nerbioi ibaia urez gainezka ikusten zuten bitartean.

Oraingo uholdeak neurri ezezaguna izan badute ere, ez dira gertatzen diren lehenak. Bizkaian bertan beste hiru izan ditugu, nahiko gogorrak, azken hamar urteetan. Eta Penintsulan ez dira urrun Ekialdean eta Katalunian hainbeste galera probokatu zituztenak. Mende honetan zehar mila biktimatik gora egin ditu euriak Estatu guztian, han hemenka uholdeak probokatuz. Galdetzekoa da, beraz, nolako defentsa-neurriak hartu dituen Espainiako Estatuak halako maiztasunaz ematen diren hondamendien aurrean.

Kritika gogorra zuzentzen zuen egunotan Santandergo Unibertsitatean Geologi katedradun den CENDRERO UCEDA jaunak: Gaur Zientziak duen maila kontutan harturik, halako hondamendiak non eta noiz gerta daitezken aurriskustea posible dela, eta uholdeen arriskuan dauden lurra mapa berezietan markatu beharko litezkeela, Europako herrietan egiten den bezela, han ez etxebizitzarik ez industriarik kokatu gabe; eta Espainian, aldiz, Administrazioak orain arte ez duela halako estudiorik agindu, eta are okerrago, arrisku handiko lurretan etxeak eraikitzea onartu duela, guztiok ezagutzen ditugun ondorioekin...

Bestalde, halako gertaeratan sarritan aipatua izaten den «PROTECCION CIVIL» delako erakunde arduratu du Estatuak hondamendien aurkako borrokarako. Hona hemen erakunde horri buruzko zenbait datu:

Barne Ministeritzaren pean aurkitzen den «Dirección General de Pro-

tección Civil» deitu erakundeak 300 funtzionari ditu, eta Estatuako Presu-
puestuetan 60 milioi pezeta ematen zaizkio urte gutzirako. Ez du egoitza propioirik, eta Probintzia bakoitzean Gobernu Zibilean kokatzen da.

Bizkaiko «Protección Civil» horrek 10.000 pezetako presu-
puestoa du hiruhilabetero, jantzi laranja ikusgarri hoietatik aparte ezer gutxi-
tarako ematen duena. Esaterako, abuztuaren 26an; Bilbon uholdeak hasi zirenean, ez zeukaten salba-
mendurako «Zodiac» erako txalupa bat ere, eta Gobernu Zibilaren ondoko denda batetan eskaparatea apurtu eta hartu behar izan zituzten lehen hirurak, lanean hasteko. Eta hau da Estatu guztian gerta daitezkeen hondamendiei aurre egiteko ardura duen erakunde!

ARMADA, POLIZIA, GUARDIA ZIBILA HERRIAREN BABESLE?:

Egia da salbamendu-erakunde zibil-
en ahulezia estaltzeko Armada, Polizia eta Guardia Zibila bidali diz-
kigula Estatuak salbamendu lanetarako. Bizkaian, 2.500 soldadu, 400 guardia zibil, 1.000 polizia eta 700 hertzain izan omen ditugu egunotan lan horietan.

Eta egia bada Armadak ekarritako medio batzu baliagarriak gertatu direla, batez ere helikopteroak salbamendu-lanetan eta pala mekani-
koak garbiketarako, egia da baita nabaritu dela erakunde armatu horien funtzioa ez dela salbamendua: deskoordinazio nabaria, beharrezko diren tresna askoren falta eta prepa-
razio eza adierazi dute.

Baina Estatuarentzat ez du horrek hainbesteko garrantzirik, Armada eta Polizia halako lanetan sartzeaz irabazi politiko ikaragarria lortu baitu: berez gerra egiteko, herriaren aurka borrokatzeko eratu dituen erakunde hauen benetako helburu hori izkatuta eta herriaren laguntzaile, babesle eta honen zerbitzuan baleude bezala agertzea.

Eta egin duten lanaren efikazia erabat zalantzarria bada ere, hor ditu Estatuak komunikabideak bere esku, horien lana mila aldiz goraipat-
tzeko. Are gehiago lau guardia hilda gertatu direnean.

Beraz, «Protección Civil» horren ezina eta populazioa babesteko neurri efektiboen eza soberaz bete du Estatuak, ez efikaziaz, baina bai irabazi politikoaz, errepresio-gorputzen aurpegi beltza zurituz.

GALERA EKONOMIKOEN PISUA:

Ezagunak dira eskaini diren lehen balorazioak: 500.000 milioitik gora galdu omen dira Euskal Herrian, eta gehiena Bizkaian, kantitate horren erdia industrian izandako kalteak direlarik.

Bizkaiko ekonomian industriak duen inportantzia kontutan harturik, eta fabrika handienak Nerbioi eta Ibaizabal ibai-arroetan kokatzen direla kontsideratuz, susmatzekoa da Bizkaiko egitura ekonomikoak hartu duen kolpea ez dela edonola-
koa izan.

Hiri industrialduenak izan dira Bizkaian uholderik handienak jasan dituztenak. Errepaso arin batean ikus daitekeenez:

Nerbioi garaian:

Amurrion eta Laudion: Tubacex eta Tubos Reunidos lantegietan, kalte ez hain grabeak. Aceros de Llodio-n, stocken galera; Vidrieras Llodion, ipini berria zen 800 milioi-
ko labea hondatu da.

Arrigorriagan: Papelera Española-k, galera grabeak. Basauri-Etxe-
barrin: Altos Hornos-Laminaciones-en, 500 milioiko galera, kontserba-fabriketara bidaltzeko zeuzkatzen latorria galdu baita.

Ibaizabalen:

Galdakaon: Formica eta Ceplastica-n, galera handiak.

Basaurin: Firestone-n (lehendik ere krisian) eta Fabrelec-en, galera grabeak.

Nerbioi behean:

Astilleros Españoles nahiko osorik salbatu da, Babcock-Wilcox eta General Electrica Española-n, ordea, galera handiak izan dituzte.

Gernika eta Bermeoko industria (azken honetan kontserba-fabrikak bereziki) ere erabat hondatuta.

Orotara, Bizkaiko ekonomiaren muina den industri-sektorean 250.000 milioitik gorako galerak gertatu dira.

Ez hainbesterakoak, baina ondorio oso kaltegarriak dituzte zerbitzu-sektorean gertatuak, sarritan famili-enpresak baitira: Bilboko Zazpi Kaleetan 1.200 inguru denda birrindu du uholdeak. 175.000 milioi galdu dira sektore honetan.

ESPAINIAKO ESTATUAREN BATUTA AZPIAN:

Bizkaiko egitura ekonomikoa

hain sakonki minduta ikusirik, bada beldurra ere ez ote duen berriro bururik altxatuko; egoera ez ote den azpiaurrerabide edo subdesarrollo-rantz bideratuko.

Ausardiaz jokatu du bere baza egoera honetan PSOEn Gobernuak: Espainiako Gobernuaren Ministro-Kontseiluak 500 milioiko diru-kreditoak eskaini ditu hondamendiaren ondorioei aurre egiteko. Egia da Espainiako ekonomiak egun ezagutzen duen krisi-egoeran, halako diru kopurua zama latza dala Estatuaren Presupuestoetan; pentsa aurtengo Presupuestoan izan den defizitaren erdia suposatzen duela diru horrek. Beraz, ez zaio erraza egingo diru hori libratzea.

Baina, bestalde, ezin uka Bizkai-

ko ekonomiak Espainia osokoa duen garrantzia, eta alde honetatik ez zitzaion Gobernuari beste irtenbiderik gelditzen.

Eta horrez gain, hortik ere irabazi politikoak espero ditu Estatuak: alde batetik, Bizkaiak duen egoeraren salbatzailetzat agertzen da, eta ondorioz hemengo hainbat sektore burgesen adiskidetasuna ere lor dezake, neurri batean hauen negozioak bere eskuetan baitaude. Bestalde, Euskal Gobernu eta PNV bere menpean jartzen ditu erabat; Estatu honen barruan jokatzeko erabaki baitute, eta gertatuz, ez dute beste erremediorik Madrilek ematen duenaren zai gotea baizik.

Bizkaiaren berreraikuntza Espainiako Gobernuaren ikuspuntutik lehengo egoera zapaltzailearen eta gogorkeriaren berreraikuntza besterik

ez da, jakina. Eta ildo horretatik jotera behartuko du PNV ere, orain eskuz loturik daukana.

Adierazgarriak dira zentzu honetan Euskal Gobernuko Industri Kontseilariak, ISASTI jaunak, egingako deklarazioak:

«Industrien berregituraketak arindu; lan erregulaziorik, expedienteak ugaltu eta birmoldaketa industrialak bultzatu» da bere ustez orain egin behar dena. Ferrer Salat-en agintean jarri, beraz.

Hondamenditik irteteko bide bartzat, Espainiako Estatu Zaharra berrindartzea proposatzen digute, beraz, euskaldunoi. Ikusiak ikusi, atera bitza bakoitzak bere konklusioak.

Antton AZKARGORTA
Karmelo LANDA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

«GURE ARTEA» saria: Irudigintza, marrazkigintza eta grabaziogintza.

Eusko Jaurlaritzako Kultura-Sailaren 1982.eko Urriaren 7ko Aginduz (Urriaren 23ko E.H.A.A.), aipaturiko modalitatetako itxura-bidezko arte-lanei buruzko «GURE ARTEA» saria sortarazten da. Lanen aurkezpena Irailaren lehenengotik 30era artean egin behar da, Gasteizko Kultura-Etxean.

Argipide gehiago honako leku hauetan jaso daiteke:

- Bizkaiko Lurralde-Ordezkaritzan; Gran Via kaleko 17an. Tfnoa: 4164411
- Arabako Lurralde-Ordezkaritzan: Gral. Alava kaleko 10ean. Tfnoa: 231824
- Gipuzkoako Lurralde-Ordezkaritzan: Andia kaleko 13an. Tfnoa: 426520